

BILKURAREN AKTA

Bilkuraren datuak

Organoa:	Euskararen Nafar Kontseilua		
Bilkura zk.:	2024/2 ezohikoa		
Tokia:	Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren egoitzan. Nahi zuten kideek modu telematikoa hartu dute parte.		
Eguna	2024/09/12		
Hasiera ordua:	12:45	Amaiera ordua:	13:40

ACTA DE REUNIÓN

Datos de la reunión

Órgano:	Consejo Navarro del Euskera		
Nº de sesión:	2024/2 extraordinaria		
Lugar:	Sede de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera. Quien así lo ha preferido, ha participado telemáticamente.		
Día:	12/09/2024		
Hora de inicio:	12:45	Finalización:	13:40

Bertaratuak

Asistentes

Kontseiluburua	Ana Ollo Hualde	Presidenta
Kontseiluburuordea	Javier Arakama Urtiaga	Vicepresidente
Kideak	Miguel Moreno Ariztegui Ane Sánchez Jiménez Eneka Maiz Ulaiar Ana Luján Martínez Mikel Arregi Pérez David Anaut Peña Josu Reparaz Leiza Josune Arévalo Domínguez Idurre Eskisabel Larrañaga Xabier Garcia Castell Joxerra Olano Etxabe Agurne Gaubeka Erauskin Oskar Zapata Solano Nerea Fillat Oiz Reyes Ilintxeta Jimenez Orreaga Ibarra Murillo Aingeru Epaltza Ruiz de Alda	Vocales
Idazkaria	Paula Kasares Corrales	Secretaria
Agertu ezina azaldu dutenak	Agurtzane Martínez Ortigosa Imanol Nuñez Aldaz Naiara Ardanaz Iñarga	Excusan su asistencia

Gai zerrenda

1. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainean Euskararen Nafar Kontseiluak txostena ematea.

Eztabaidak eta erabakiak

- 1. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainean Euskararen Nafar Kontseiluak txostena ematea.**

Ana Ollo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari andreak kontseilukideak agurtu du eta Euskararen Nafar Kontseiluaren saioan aurrez aurre eta osorik parte hartu ezin izateagatik desenkusatu da.

Saio monografikoa izanen dela azaldu du eta, aurreko bietan bezala, honetakoan ere Euskararen Nafar Kontseiluari dagokiola Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretuaren Proiektuaren gainean txostena ematea. Horretarako, eta aipatu proiektua azaltzeko, Funtzio Publikoko zuzendari nagusia den Rashid Mohamed Vázquez jaunak saioan parte hartuko duela jakinarazi du. Azken honi hitza eman dio eta hori egunik, kontseilari andreak Kontseilua utzi du.

Funtzio Publikoko zuzendariak aztergai den arauaren Proiektua aurkeztu du eta arauaren aurrekariak eta orain artiko izapideak azaldu ditu. Dokumentua, gaztelaniaz eta euskaraz, deialdiarekin batera igorri zitzaizen kontseilukideei.

Mohamed jaunaren azalpenak akiturik, Jabi Arakama Euskarabideko – Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaile eta Euskararen Nafar Kontseiluko buruordeak kontseilukideei hitza eman dit, hala nahi bazuten, boto azalpena egin zezaten.

Orden del día

1. Emitir informe del Consejo Navarro del Euskera sobre el Proyecto de Decreto Foral por el que se regula la valoración de méritos en el acceso y provisión de puestos de trabajo en las Administraciones Públicas de Navarra.

Deliberaciones y acuerdos

- 1. Emitir informe del Consejo Navarro del Euskera sobre el Proyecto de Decreto Foral por el que se regula la valoración de méritos en el acceso y provisión de puestos de trabajo en las Administraciones Públicas de Navarra.**

La Sra. Ana Ollo, Consejera de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera, saluda a las y los miembros del Consejo y se disculpa por no poder asistir a esta sesión de forma presencial y hasta el final de la misma.

Expone que se trata de una sesión monográfica y, al igual que en las dos ocasiones anteriores, en esta también se le solicita al Consejo Navarro del Euskera que emita informe sobre el Proyecto de Decreto Foral por el que se regula la valoración de méritos en el acceso y provisión de puestos de trabajo en las Administraciones Públicas de Navarra. Para ello, y para exponer dicho proyecto, tomará parte en la sesión el Sr. Rashid Mohamed Vázquez, Director general de Función Pública, a quien cede la palabra, abandonando la sesión a continuación.

El Director general de Función Pública expone el Proyecto de norma, los antecedentes y la tramitación hasta la fecha. El documento, en castellano y euskera, se había remitido a los vocales del Consejo junto a la convocatoria.

Tras la intervención del Sr. Mohamed, el Sr. Jabi Arakama, Director gerente de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera y vicepresidente del Consejo, abre un turno de palabra para que los vocales que así lo deseen, expongan su explicación de voto.

Eneka Maiz andreak, Nafarroako Parlamentuko kideak, kontrako botoa iragarri du. Alde batetik, arauaren Proiektuak izan duen prozedura luzea, haren ustez ulergaitza, aipatu du; eta bertze aldetik, arauaren Proiektuaren edukia, haren ustez 103/2017 Foru Dekretuaren edukia husten baitu. Atzera pausua dakarrela argudiatu du.

Idurre Eskisabel andreak, Euskalgintzaren Kontseiluaren ordezkariak, kontrako botoa iragarri du. Joan den martxoan, hirurogei gizarte erakunde baino gehiago, askotarikoak, aztergai den arauak bertze norabide bat har zezan eskaera egiteko batu zirela gogorarazi du. Haren iritziz, Arau Proiektuak euskara eta euskal jendea gutxiesten ditu eta, ohartarazi du, Nafarroako herritarren herritartasunaren bermea Administrazio Publikoek ematen dutela.

Agurne Gaubeka andreak, Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren ordezkariak, kontrako botoa iragarri du. Ordezkatzen duen erakundeak herritarren hizkuntza eskubideen alde lan egiten duela azaldu du eta Arau Proiektuak 103/2017 Foru Dekretua edukiz husten duela argudiatu du. Euskararen Nafar Kontseiluaren aurreko bilkura batean egindako galdera bat ekarri du hizpidera: azken urteotan zenbat lanpostu deialdi publiko argitaratu da euskara meritutzat hartu gabe. Euskara Nafarroako hizkuntza berekia dela, oroitarazi du, herritar guztiok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea duguna, atzerriko hizkuntzekin gertatzen ez dena. Arau Proiektu honen bidez zer ari den sustatzen ez da garbi geratzen, haren ustez, zerbitzu publikoak egoki ematea ez, antza, dio. Hizkuntz Eskubideen Behatokian jasotako kexa batzuk aipatu ditu: pasa den udan Hezkuntza Departamentuko Erregistroan, Nafarroako Museoan eta Nafarroako zenbait liburutegi publikotan euskaraz arreta egiteko inor ez egotea. Bertzalde, Euskararen Nafar Kontseiluaren saio honetan Mohamed jaunak parte hartzen duela probesturik, galdera hauek, hitzez hitz, luzatu dizkio Nafarroako Gobernuaren Funtzio Publikoko zuzendari nagusiari: 1) Foru Dekretua indarrean jarri eta bi hilabeteko epean departamentu bakoitzak justifikazio txosten bat igorriko duela ezartzen da. Justifikazio horren balorazioa egokia den edo ez Zuzendaritza Nagusiak egingo du? Euskarabideak ez du balorazioan parte hartuko?.

La Sra. Eneka Maiz, miembro del Parlamento de Navarra, anuncia su voto desfavorable. Por una parte, alega la tramitación larga y, a su juicio, difícil de entender; y por otra parte, entiende que el Proyecto de norma vacía de contenido el Decreto Foral 103/2017, suponiendo un paso atrás.

La Sra. Idurre Eskisabel, en representación de Euskalgintzaren Kontseilua, anuncia su voto desfavorable y recuerda que en el pasado marzo, más de sesenta entidades sociales, de muy diversa naturaleza, se unieron para solicitar que la norma que es objeto de informe tomara otra dirección. En su opinión, el Proyecto de norma menosprecia al euskera y a sus hablantes y apunta que son las Administraciones Públicas quienes son la garantía de los derechos de la ciudadanía.

La Sra. Agurne Gaubeka, en representación de Hizkuntz Eskubideen Behatokia, anuncia su voto desfavorable. Aclara que la entidad a la que representa trabaja a favor de los derechos lingüísticos de la ciudadanía y que este Proyecto de norma vacía de contenido el Decreto Foral 103/2017. Menciona una cuestión que presentó en una sesión anterior del Consejo Navarro del Euskera: ¿cuántas convocatorias públicas de empleo se han publicado en estos últimos años en las que el euskera no ha sido tenido en cuenta como mérito? El euskera es lengua propia de Navarra y toda la ciudadanía tiene el derecho a conocerlo y a usarlo, algo que no ocurre con las lenguas extranjeras. En su opinión, no queda claro qué se persigue con este Proyecto de norma, no parece que sea dar un servicio público adecuado. Cita algunas de las quejas que se han recibido en el Observatorio de Derechos Lingüísticos, entidad a la que representa: el hecho de que, durante el pasado verano, no hubiera nadie que atendiera en euskera en el Registro del Departamento de Educación, o en el Museo de Navarra o en algunas bibliotecas públicas. Aprovechando la presencia del Sr. Mohamed, le dirige las siguientes preguntas: 1) Se establece que a los dos meses de la entrada en vigor del Decreto Foral, cada departamento enviará un informe justificativo. ¿Será cada dirección general la que diga si la valoración de esa justificación es adecuada?, ¿Euskarabidea no tomará parte en la valoración?.

2) Justifikazio txosten horietan igorritakoa zuzena ez dela eta, adibidez, lanpostu batzuetan baloratu beharko zela uste bada, zein izango da prozedimendua eta atzera botatzeko epea?. 3) Plazen euskararen balorazioa herritarrekin duten harremanaren arabera soilik izango da edo departamentu horretako egoera edo lana eta zerbitzua euskaraz egin ahal izatea ere kontuan hartuko da? Batik bat euskara planen helburuei begira.

David Anaut jaunak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak, kontrako botoa iragarri eta ordura artio hitz hartu duten kontseilukideek emandako argudioekin bat egin du.

Joxerra Olano jaunak, IKA helduen euskalduntzeko gizarte erakundearen ordezkariak, kontrako botoa iragarri du eta honakoa azaldu: Arau Proiektuak 103/2017 Foru Dekretua edukiz husten duela eta gainera, haren ustez, Foru Dekretu hori bere horretan eskasa zela. Galdera hau botata akitu du bere hitz hartzea: Nafarroa osoan euskara ofiziala izateak inori kalterik sortuko al lioke?

Mikel Arregi jaunak, Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak, Arau Proiektuaren aurrekariak aipatu ditu. Nafarroako Gobernua Arauaren izapidean motelegi ibili dela iritzi du eta bere abstentzioa iragarri. Funtzio Publikoko zuzendari nagusiari galdera luzatu dio euskara ez bertze meritu guztiei dagokienez.

Kontseilukideek hitz egin eta gero, Arakama kontseiluburuorde jaunak luzatu dizkioten galderei erantzun ahal izateko aukera eman dio Funtzio Publikoko zuzendari nagusiari eta honek kontseilukideek (euskaraz) erran dutena ez duela ulertu azaldu du.

Arakama jaunak argitu duenez, saioan parte hartzeko, beti bezala, aldibereko interpretazio zerbitzua eskainiko zela jakinarazi zen alde zurretik. Izan ere, Mohamed jaunak bezala euskaraz ulertzen ez duen bertze kontseilukideren

2) Si se estima que lo recogido en esos informes justificativos no es correcto y, por ejemplo, si se estima que habría que valorarse en algunas plazas, ¿cuál será el procedimiento y el plazo para echarlo para atrás?. 3) La valoración del euskera en las plazas, ¿será solo según la relación directa que tienen con la ciudadanía o se tendrá en cuenta la situación de cada departamento y el poder trabajar y dar servicio en euskera? Sobre todo, de cara a los objetivos de los planes de euskera.

El Sr. David Anaut, en representación de la Federación Navarra de Municipios y Concejos, anuncia su voto desfavorable y se adhiere a los argumentos expuestos por los vocales que le han precedido en la palabra.

El Sr. Joxerra Olano, en representación de IKA, organismo que trabaja en el ámbito de la enseñanza de euskera a personas adultas, anuncia su voto desfavorable y alega que el Proyecto de norma vacía de contenido el Decreto Foral 103/2017, siendo éste ya de por sí insuficiente. Concluye su intervención formulando la siguiente pregunta: ¿perjudicaría a alguien el hecho de que el euskera fuera oficial en toda Navarra?

El Sr. Mikel Arregi, en representación de la Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos, menciona los antecedentes del Proyecto de norma; estima que el Gobierno de Navarra ha actuado demasiado lentamente en esta tramitación y anuncia su abstención. Le dirige una pregunta al Director general de Función Pública sobre la valoración de todos los demás méritos, aparte del euskera.

Tras las intervenciones de los vocales, el vicepresidente del Consejo, el Sr. Arakama, da al Director general de Función Pública la opción de respuesta a las cuestiones formuladas y éste responde diciendo que no ha entendido las intervenciones (en euskera) de los miembros del Consejo.

El Sr. Arakama aclara que se informó con antelación que para tomar parte en la sesión, se ofrecería, como siempre, servicio de interpretación simultánea a los miembros del Consejo y que, de hecho, algún vocal que, como el Sr. Mohamed, no

batek hala hartu du parte saioan. Kontseilukideek Funtzio Publikoko zuzendari nagusiari luzatu dizkioten galderak helaraziko dizkiola jakinarazi du.

Saioa modu telematikoan parte hartzen ari zen Mohamed jaunak kontseilukideei agur erran eta bilkuratik alde egiteko asmoa adierazi du.

Gaubeka andreak Euskararen Nafar Kontseiluak hemendik aitzina izanen duen bilkuren modalitatearen gainean galdegin du, ea telematikoak izanen ote diren. Azkenik, Nafarroako Gobernuak Euskararen Nafar Kontseiluaren iritziak behar bezala aintzat hartzen ez dituela aipatu du.

Eskisabel andreak, azken hitzen harira, Euskararen Nafar Kontseilurako kontsiderazio handiagoa eskatu du.

Arakama jaunak Euskararen Nafar Kontseiluaren bilkurak aurrez aurrekoak izatea lehenetsiko dela jakinarazi du eta bertze inork azalpenik eman nahi ez baitu, kontseilukideak bozka ematera deitu ditu. Bozketa eginda, emaitza hau izan da: 12 boto kontrako, aldeko boto 1 eta 6 abstentzio.

Hala bada, Euskararen Nafar Kontseiluak Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretuaren Proiektuaren kontrako txostena eman du.

Aztertu beharreko beste gairik gabe, bilkura bukatutzat eman da 13:40an.

entiende la lengua vasca, ha podido participar así en la sesión. Añade que le hará llegar al Director general de Función Pública las cuestiones que le han dirigido los vocales del Consejo.

El Sr. Mohamed, que tomaba parte en la sesión telemáticamente, se despide de las y los miembros de Consejo y comunica su intención de abandonar la reunión.

La Sra. Gaubeka pregunta sobre la modalidad en la que se realizarán las sesiones del Consejo de ahora en adelante, si serán telemáticas. Finaliza comentando que el Gobierno de Navarra no toma en consideración debidamente las opiniones del Consejo Navarro del Euskera.

La Sra. Eskisabel, al hilo de la última intervención, solicita más consideración para el Consejo Navarro del Euskera.

El Sr. Arakama informa que se priorizará que el Consejo Navarro del Euskera se reúna presencialmente y, al no haber ninguna otra solicitud de palabra, llama a los y las miembros del Consejo a votar, produciéndose el siguiente resultado de la votación: 12 votos en contra, 1 a favor y 6 abstenciones.

Así pues, el Consejo Navarro del Euskera emite informe desfavorable al Proyecto de Decreto Foral por el que se regula la valoración de méritos en el acceso y provisión de puestos de trabajo en las Administraciones Públicas de Navarra.

Sin más temas que tratar y siendo las 13:40 horas, se da por terminada la reunión.

Iruñean, 2024ko irailaren 21ean. / En Pamplona, a 21 de septiembre de 2024.

Kontseiluko idazkaria / La secretaria del Consejo